

Liburuak

KRITIKA

Alea. Beñat Sarasola.
Susa. 120 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Lehenago utopien ostean

DADAISTEK HALA ZIOTEN: “Ez dut gura jakin ere egin, ni baino lehenago inor egon den”. Sarasolak lehen aldiz ariko balitz bezala idatzi du *Alea*. Baina, bestalde, Laboari dedikatzen dio poema ia ezinezko bat, eta liburuak poesia erabatekotik narratibora egiten du apurka-apurka, eta enumerazio zoroetatik hezur-haragizko istorioetara. Nola definitu beraz liburu ez hain abangoardista hau, dena idatzia badago jadanik, abangoardia atzean geratu bada?

Aforistikoa, etenez betea, pitin bat egunerokoa, apur bat collagea, sano konplexua, *Aleak* jendez beteriko kaleen usaina dakar, milaka pertsonen presa, hiriaren bakardade zaratsua... Eta marko postmoderno horretan arrapaladan datoz pentsamenduak, ez du astirik ematen analisirako, helburua ez da subjektua, baizik eta objektuaren deskripzioa egitea: gaur egungo bizitza eta patroirik eza. Donostiarrak, bere azken aldiko Bartzelona erraldoi eta aberatsa deskribatzeko, literaturaren mugak zeharkatu behar direla ikusi du. Emaizta interesgarria da. Irakurtzeko gogorra baina ulertzeko erraza. Ez dago zertan ezer ulertu. Erritmoa liburuak berak markatzen du, hiriak markatzen duen bezala hiritarren erritmoa.

Irakurleari protagonismo handia ematen dion liburua da, halabeharrez, honakoa. Modu eskuzabalean irakurri behar da, eta idazlearen ahalegina onartu, hizkera aldrebes eta zurrunbilotsuan sartuz. Pentsamenduak gorde ezin dezakeen bizitzaren oihartzuna da Sarasolak, gordin, paperera ekarri duena. Poema-bakarrizketa hauek erregistro berezi bat dira, joko bat. Errealitatea beste modu batera azaldu ezin, eta Sarasolak absurdotu egiten du poesia. Debate hori –poesiaren doitasunarena, tradizio eta modernitatearena– zabalik dago XX. mendeko bigarren hamarkadatik, eta ez da oraindik itxi. Eta Sarasolak eztabaida errekuperatu du, zabaldu egin nahi du hausnarketa. Poesia, azken finean, ez da bakarrik emozio-egoera. Pentsaketa ere bada. Eta aurrea egingo badu, arakatu egin behar dira konbentzioak. Sortzaile erromantikoen figura dudan jartzeko irakurketa gomendagarria, inondik ere. Ze Sarasola ez da poeta batere erromantikoa. *Alea* ez da batere intuitiboa. *Alea* da, kasik, metahizkuntza. Poeta-kritikariaren hoztasunarekin landua, orainetik idatzia, post-utopikoa eta serioa bezain ironikoa, liburu hau garaiko produktua da duda barik. ■

Zuberoako literatur ondarearen antologia

Euskaltzaindiaren *Euskaltzainak* bildumak argitaratu du Jean-Louis Davanten *Zuberoako Literaturaz. Antologia laburra* izeneko liburu hau. Aurretik baziren Zuberoako letren antologiak, besteak beste, Txomin Peillenen *Zuberoako itzal argiak* eta Davantek berak egindako *Zuberoako idazle zehduak*. Baina

aurrenekoak XV, XVI eta XVII. mendeak landu zituen, eta bigarrenak XX. mendekoak. Bien arteko hutsunea betetzera dator, beraz, Davanten lan berria, XVIII eta XIX. mendeetako testuak bilduz, gainontzeko mendeetako ondarea osatzearekin batera. Hautatutako idazleen artean, batzuk aipatzearren, Agosti Xaho, Jean Iribarne, Aña Urruty eta Beñat Mardo daude. ■



Zuberoako literaturaz...
Jean-Louis Davant.
Euskaltzaindia.
240 orrialde.
12 euro.

Buster Keatonek hitz egin izan balu

Donostiako Meettok argitaletxeak kaleratu berri du gaztelaniaz Kari Hotakainen idazle finlandiarraren *Buster Keaton: vida y obra* (Buster Keaton: bizitza eta lanak). Tituluak kontrakoa pentsarazten badu ere, Hotakainen lan hau ez da biografia bat, nobela baizik. Zehatz esateko, idazlearen aurreneko nobela izan zen, 1990ean argitaratua. Buster Keaton aktorearen bizitza kontatu ordez, aktore horrek bere inguruan sortu duen fenomeno du ardatz eta liburuen helburua Keaton gaur egunean kokatzea da. Egilearen beraren hitzetan, zinema mutuko aktoreak hitz egin izan balu zer esango lukeen jakin

nahi zuen, eta horretarako haren ahotik hitz egin hasi zen. ■



Buster Keaton: vida y obra.
Kari Hotakainen.
Meettok.
123 orrialde.
14 euro.